

M E N D I A

■ Arabako espedizioa gaur ahaleginduko da Dhaulagiri gaina lortzen

ARABAKO espedizioa kideak atzo bigarren kanpamenduan zeuden, eta baliteke gaur bertan saiatzea Dhaulagiri mendiko (8.167 metro) gaina egiten. Espedizioa kideak bi aldiz ahalegindu dira azkeneko egunetan gaina lortzen, baina 7.600 metroan eta 7.800 metroan gelditu behar izan zuten elurte handia zela eta. Baliteke Juanito Oiarzabalekin batera saiatzea Mikel Ruiz de Apodaka herkiea eta Mari Abrego. X

■ Everesten beste bederatziz gizon hil direlakoan daude

HIRU mendigoizale hegokorrearrek, hiru kazakhstanarrekek, alemaniar batek, sherpak batek eta oraindik identifikatua gabea dagoen beste batek duela egun gutxi lortu zuten Everesteko tontorra (8.848 metro) baina harrezkerro ez dago hain berririk, eta atzo Xinhua Txinako agentzia batek zioenez, bederatziz mendigoizaleak elur ekaitz gogor batek harrapatu zituen eta hilda daudelakoan dago. Agentziaren albiste iturri Peter O'Conner zeelandarra da. O'Connerrek zuzentzen duen espedizioa Everesteko magalean da, tontorrerako saioa egin asmoz. X

SASKIBALOIA

■ Knicksek 3-1ekoa lortu du Miamiaren kontra

NEW YORK KNICKS taldea NBAko Ekialdeko finaletik gertu da, atzo hirugarren garaipena lortu baitzuen Miami Heaten kontra: 89-76. 3-1 ari da irabazten orain. Beste garaipen bat behar du. John Stars (21 puntu) eta Allan Houston (17) eskoltak eta Pat Ewing pibotak (20) izan ziren Knickseko onenak. Chicago Bulls-Atlanta Hawks kanporaketari dagokionez (Bulls 3-1 ari da irabazten), Atlantako Mutombok adierazi du Bostoneko Michael Jordan joko zikina egiten ari dela. X

T E N I S A

■ Berasategi aurrera Erroman eta Chang kalera


ALBERTO BERASATEGI bizkaitarrak ez zuen aparteko arazorik izan atzo Erromako torneoko lehen kanporaketa gainditu ahal izateko, 6-3 eta 6-4 irabazi ziolako Daniel Vacek txekiarrari. Jardunaldiko ezustea Michael Changek eman zuen, bigarren zerrendaburua izaki galdu egin zuelako Gummy argentinararen kontra: 6-3 eta 6-2. X

Txirrindularitza

Olano garaile Asturiasen

Denboraldiko bere lehen garaipena lortu zuen erlojupekoan

Abraham Olano anoetarrak irabazi zuen atzo arratsaldean Asturiasko Itzuliko lehen etapa. Bera izan zen Avilesko erlojupeko azkarrena. Denboraldiko bere lehen garaipena du Olanok. Atzo sei segundoko kendu zizkion Fernando Escartin bigarrenari, 11 Francisco Benitez hirugarrenari, 12 Toni Rominger laugarrenari.



Abraham Olano atzoko erlojupekoan.

CEREJIDO / EFE

Erredakzioa / Donostia

ABRAHAM OLANOK hasi du da goeneko Tourrerako prestaketa azkeneko fasea, ongi hasi ere, bera izan zen baitzen atzo Asturiasko Itzuliko erlojupeko txirrindularirik azkarrena. Itzuliko lehen etapa zenez, Anoetakoa da lehen liderra.

Olano bera izan zen azkena irteten, eta irabaztera atera zen, lehen unetik jo eta ke aritu zen eta. Bizkikleta berezia erabili zuen, Banestoko beste txirrindularien bizikleten baino angelu zuzenagoak zituen. Helburua Olanoren posizio aerodinamikoak baliatzea zen, eta, antza, lortu zuten nahi zutena.

Erlojupekoak 5,8 kilometro besterik ez zituen, eta horrelakoetan ezin da alde handirik atera aurkariei, baina, hala ere, Toni Rominger bati 12 segundo atertzeko gauza izan zen anoetarra. Bien artean, ordea, Kelme taldeko bi gizon sailkatu ziren: Fernando Escartin sei segundora eta Francisco Benitez 11ra. Bosgarren Euskadi taldeko Cesar Solaun izan zen, liderrarengatik 13 segundora besterik ez.

Olanok ez du orain arte denboraldian gauza handirik egin, baina normala zen hori, bere

helburua Tourra baita. Badirudi prestaketa ongi bideratua duela, teoriarik orain hasiko baita fruituak lortzen. Atzokoa du denboraldiko bere lehen garaipena. «Lehen garaipen honen zain nengo, egia esan. Baina ez ni soilik, taldekoak ere bai. Izan ere, Banestok apustu handia egin du aurten nirekin», adierazi zuen.

Gaur korrituko da bigarren etapa; 164 kilometro izango ditu eta Naranco gainean bukatuko da. Txirrindulariek hiru mendate igo beharko dituzte.

Mikel Pradera Bidasoako Itzuliko lehen liderra • Olarra-Ercorea taldeak garaipenak pilotzen jarraitzen du. Talde honetako Mikel Praderak irabazi zuen atzo Bidasoako Itzuliko lehen etapa, Irunen hasi eta Irunen amaitu zena. Etapak ez zuen historia handirik izan Piedadeko mendatera arte. Bertan Banestok lan gogorra egin zuen eta, ondorioz, 12 iheslari geratu ziren aurrean. Horietatik lau Banestokoak. Tropela iheslariak irenstea zegoela,

Praderak eta Sergio Sanchezek aurrera jo zuten. Hamar kilometro falta ziren helmugarako eta biek bakarrik egin zituzten. Azkenean Praderak irabazi zuen.

Mikel Praderak zorte txarra izan du aurten. Eskumuturrean arazoak izan ditu eta denboraldia hasi ondoren etenaldi bat egin behar izan du. Berririo berragertu denetik korritzen zuen hirugarren lasterketa zen atzokoa.

Gaur itzuliko bigarren etapa korrituko da. Irungo helmugara heldu baino zortzi kilometro lehenago Jaizkibel igo beharko dute txirrindulariek. X

sailkapenak

◆ Asturiasko Itzulia

1. Abraham Olano (Banesto) 7:20
2. Fernando Escartin (Kelme) 6ra
3. Francisco Benitez (Kelme) 11ra
4. Toni Rominger (Cofidis) 12ra
5. Cesar Solaun (Euskadi) 13ra

◆ Bidasoako Itzulia

1. M. Pradera (Olarra-Erc.) .. 3.01:55
2. S. Rodriguez (Gres de Nules) . d.b.
3. Ramon Sanchez (Olarra-Erc.) . d.b.

Eskubaloia

Maglajlija pibote bosniarrak denboraldi baterako fitxatu du Bidasoa taldearekin

■ Denboraldi honetan Alemaniako Fredenbecken aritu da jokatzeko

Erredakzioa / Donostia

SENJAMIN MAGLAJLIJA bosniarrak Bidasoa taldean jokatu du hurrengo denboraldian. Urtebeterako fitxatu du. Maglajlijak pibote gisa jokatu du; duela 29 urte sortu zen Gorazden, 1,87 metro neurtzen du eta 100 bat kilo pisatzen ditu. Jugoslaviako selekzioarekin 36 aldiz aritu da.

Denboraldi honetan Alemaniako Bundesligan jokatu du, Fredenbeck taldean hain zuten ere eta 108 gol sartu ditu. Baina haren taldeak ez du batere denboraldi ona egin, azkeneko to-

kian geratu da eta. Alemaniako urtebeteko esperientziaren ondoren, atzera berriz Asobal Ligara itzuliko da. 1993-94 denboraldian Conquense taldean jokatu zuen, 1994-95ean Barcelona indartsuan eta 1995-96an Ciudad Realen. Asobalen jokatu aurretik, Borac Banjaluka eta Partizan izan zituen bere eki- poak.

Maglajlijaren palmaresari dagokionez, Borac Banjalukan 1990-91n lortutako IHF Kopa azpimarratu behar. Moskuko CSKA gainditu zuten orduan finalean. Partizanekin ere emaitza onak lortu zituen. Onena, Jugos-

laviako Ligako titulua. Garaipenik preziatuenak Barcelonarekin erdietsi zituen 1994-95eko denboraldian: Errekopa eta Asobal Kopa irabazi zituen, eta Asobal Ligan bigarren postuan geratu zen —Elgorriaga Bidasoak irabazi zuen orduan Asobal Liga—. Pibote bosniarrak Olallarekin batera jokatu zuen denboraldi hartan Barcelonan.

Bidasoak ez du oraindik nahi bezainbeste diru bildu hurrengo denboraldiari aurre egiteko, baina ari da lehen plantila zehazten. Etxabururi kontratua berritu dio, baita Ignacio Vico hegala bi denboralditarako fitxatu du. X

Futbola

Faborito argirik ez Barcelonaren eta PSGren arteko Errekopako finalean

■ Frantziarrek uste dute Ronaldo ongi zaintzea erabakigarria izango dela

Erredakzioa / Donostia

GAUR jokatu da Rotterdamen (Holanda) Errekopako finala (20:30, TF1, TVE1) eta bertan Barcelona (Katalunia) eta Paris Saint Germain (Frantzia) taldeak ariko dira nor baino nor. Teorian Barcelona talde hobea da, baina PSG ofizio handiko ekipoa da eta, beraz, finala irekia ageri da.

Bi taldeek dute gustuko Errekopako lehiaketa. Barcelonak bost final jokatu ditu guztira eta hirutan garaile izan da: 1979an, 1982an eta 1989an. Azkenean 2-0 gainditu zuen Sampdoria, eta Julio Salinas bizkaitarrak eta Luis Mari Lopez Rekarte gipuzkoarrak sartu zituzten golak. Gaur Barça titulua lortuko balu, Real Madrideren batera Europako titulu gehien lortu duen taldea izango litzateke, zortzirekin. PSGri dagokionez, bera da egungo txapelduna. Luis Fernandez Atleticeko entrenatzailea zen iaz Parisko taldeko teknikoa, eta N'Gotty zentralak sartutako golarekin gainditu zuen Austriako Rapid Viena.

Gaur Barcelonan gizon garrantzitsu batek ezingo du jokatu: Miguel Angel Nadal zentralak, Fiorentinaren kontrako itzuliko partiduan txartel gorria atera ziolako epaileak. Giovanni eta Laurent Blanc kili-kolo dabilta, baina jokatzeko moduan egingo direla esan du Barçoko medikuak. Ikusi egin behar Bobby Robson entrenatzaileak azkenean Gica Popescu pibote titular zelairatzen duen edo ez. Zelairatzen badu, baliteke De la Peña aurrerago kokatzea eta Giovanni aulkian geratzea.

PSGn jokalaria guztiak ondo daude, Alain Roche izan ezik. Frantziarrek esan dutenez, Ronaldo ondo zaintzea erabakigarria izango da. Leonardok, adibidez, hauxe esan du: «Jokalaria bikaina da, eta badakigu bi metro uzten badizkiogu hil egingo gaituela». Ronaldok berak adierazi du final hau dela inoiz jokatu duen «partidurik garrantzitsuen».

Bartzelonatik 11.000 jarraitzaile joan dira Rotterdamera taldea animatzera, eta Paristik 16.000.

Barcelona: Vitor Baia; Ferrer, Couto, Blanc, Sergi; Guardiola, De la Peña; Figo, Giovanni, Luis Enrique; Ronaldo.

PSG: Lama; Fournier, N'Gotty, Le Guen, Domi; Leroy, Guerin, Caulet, Leonardo; Rai; Loko. X